



FRONTOIA ERABILTZeko IRIZPIDEAK

Momentuz kantxa bakarrik erabili daiteke honako baldintzetan:

Edozeinek edozein sintoma duela uste badu edota berarekin hartu-eman zuzena izan duen familiar edota lagunen batek positiboa eman badu, etxean geratu eta osasun zerbitzuek esandakoa egin.

Gomendioak:



- Eskuak sarritan garbitu, batez ere gauzak elkar banatzen ditugunean. Horretarako langile bakoitzak gel hidro-alkoholiko pote bat izango dugu, lanerako eta lanean, norberarena izango dena: Gel-a amaitzen bazaizue udaletxean eskatu
- Zuen lan ingurua ondo aireztatuta izan osasun gomendioei kasu eginez.

Langileon jardunerako neurriak:

1,5 metro



- Gure arteko hartu emanetan:
 - o Distantziak mantendu.
- Baten batek nahiko edo beharko balu, besteak beste, 1,5 metroko distantzia ezin duelako herritar/lankidearen artean gorde *maskara* erabili
- Aurretik eta ostean desinfektatu beharko da. Horretarako papera eta desinfektatzailea frontoiko bulegoan egongo da

Maskaren erabileran inguruko araudia:

Ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuak beharrezko prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurri urgenteak ezartzen ditu, COVID-19 delakoak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko, bai eta berragerraldi aurrea hartzeko ere, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren III. fasea gainditzeko. Zehazki, honako hau jasotzen du:

- Maskarak nahitaez erabiltzea arautzen da sei urtetik gorako pertsonentzat.
- Eremu publikoan, aire zabaleko guneetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan maskarak erabili beharko dira, baldin eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia gutxienez 1,5 metrokoa dela bermatu ezin bada.
- Aurreko betebeharrak ez zaizkie eskatuko maskararen erabilerak larritu dezakeen eritasun edo arnasteko zailtasunen bat duten pertsonen, edo, ezgaitasun edo mendekotasun egoera dela-eta, maskara kentzeko autonomiarik ez dutenei, edo maskararen erabilera bideraezina egiten duten portaera-aldaketak dituztenei.
- Ez da eskatuko, halaber, aire zabaleko banakako kirolean aritzean, ez ezinbesteko kasuetan, ez premia-egoeran, ez eta, jardueren izaeratik beragatik, maskara erabiltzea bateraezina denean ere, osasun-agintarien jarraibideen arabera.
- Maskarak erabiltzeko betebeharra ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da, eta ehun euro arteko isunarekin zigortuko da.

Gainerako kasuetan, norberak egokien ikusten dituen neurri oro hartu ahal izango du.

KOMUNAK: Komunak langileok bakarrik erabili ahal izango dituzte, ezinbestekoa ez bada (1.go pisukoak izango dira)



Jendeari arreta zuzena emateko:

- Alkohol hidrológico dosifikatzaile finko bat eta bere "eskuak garbitu" kartelak jarri da erabiltzaileentzako sarreran.
- Materialaren erabilera partekatua saihestuko da, ahal den neurrian.
- Kanpoan egin daitezkeen jarduera guztiak kanpoan egingo dira, 1,5 metroko distantzia bermatuz pertsonen artean.
- Instalazioen garbiketa eta desinfekzioa frontoia ireki aurretik egingo da.
- Saioak amaitu ostean, aretoa 15 minutuz garbituko da, behin aretoa hutsik gelditu eta gero.
- Arduradun bat egongo da. Honek, ezarritako araudiaren betetzea zainduko du.

Pelota entrenamenduetara erabiltzaileen sartu irteerak:

- Arreta zuzeneko orduak 15 urtetik gorako federatuentzat: Astearte eta ostegunetan 18:00etatik 20:30etara. Larunbatetan 10:00-12:30etara
- Frontoiko kantxa bakarrik zabalduko da.
- Beharrezko materiala etxetik ekarri behar da.
- Sarrera-irteeretan eskuak garbitu. Sarreran dosifikatzailea eta dagokion kartela egongo da.
- Kantxan sartu aurretik oinetakoak aldatu behar dira sarreran.
- Kiroldegiko arduradunak esaten duenari kasu egin
- Pertsonen arteko distantzia zaindu
- Komunak (ezinbestekoa ez bada) eta aldagelak itxita egongo dira erabiltzaileentzat. Pilotariak beren jarduerarako behar duten kirol arropa jantzita joango dira instalaziora.
- Taldearen gelatik materialen bat behar bada, kiroldegiko arduradunarekin geratu, maskara erabili eta arduradunarekin batera hartzeko aukera egongo da.
- Garrantzitsua da jokatzeko pilotak eta materialak desinfektatzea.
- Kirolariek ez dituzte botilatxoak, eskuoihalak edo indibidualiza ez daitezkeen edozein kirol-material (peto, banaka erabiltzeko baloiak, stik, bate, eskularruak...) partekatuko, jarduerarako ezinbestekoa ez bada.
- Ez da ikuslerik egongo harmailetan.
- Entrenamenduak talde txikietan egingo dira (2 edo 4 kirolari gehienez eta entrenatzailea) eta txandak zehaztuko dira pertsona asko elkar ez daitezen (50 minutuko entrenamendua+ 10 minutu desinfekzioa)
- Pilotari bakoitzak bere pilotarekin bakarrik entrenatuko du, eta ezin izango ditu bi pilotari edo gehiago erabili pilota bera. Ekainaren 20tik aurrera, EHAk arautzen duen bezala, baimena ematen da taldean entrenatzeko eta kirolarien arteko interakziorako.
- Momentuz ez dira balioesten eskola kiroleko entrenamenduak, baina federatu bat adingabea bada, beti heldu batek lagunduta joan beharko du. baina betiere ezartzen diren segurtasun tarteak eta babes eta higiene neurriak mantenduz.
-